

TERE IRASTORTZA



Txoriak dira bederatzi



Txoriak dira bederatzi

Irastortza, Tere

ISBN: 978-84-9172-020-1
Saio eta Testigantza, 199
Iñaki Bastarrikaren ilustrazioekin
2017. urtea / 15 x 21 cm / 192 or.

17,00€

Txoriak bederatzi dira, baina bat ez da ageri, oraindik.

Sigi-saga datoz esaldiak, bitartean.

Liburu hau, ornogabea da eta bareak bezala nahiago du zoru umela,
eta urak bezala, edozein zirrikitu iragaten ez duenean,
erle-liztorren berbaroa eraginez, nahiago du durunda egitea.

- Falta den hitza aurkitzen dutenak dira, liburuan, mundua entzuten dakiten adiskide minak.
- Nork berak ezin du bere burua ferekatu, amultsuki ukituta ere; eta bere burua ezagutu arren ere, ezin du lagundu. Laguna behar du, izango bada.
- Alde onaren ifrentzua ez da alde txarra, alde erantzia baizik.
- 8 eta ∞ , edo infinituaren sinboloa. Zortziaren ikur inbertitua da infinitua.
- Sortzea askatzea balitz, lotura gabe sortu ahal izango litzateke, pentsamendu gabe. Sortzea, baina, aitzinagora jotzea ere bada. Sortzea, ordea, bada, azala berritzea: ustez geure bizipena zenari pentsamenduaren mozorroa erantztea: dena erretzean geure gorputza gexal batek baino babesten ez duela jakitea: eta igartzea, aitzinagoko senak ikasitakoaren zurrunbiloan atzera jo eta gizakiago (eta fisikoago) izatera eraman gaitzakeela.

■ ■ ■ ■

Tere Irastortza Garmendia

Zaldibia (Gipuzkoa, 1961).

Beasaingo Andramendi Ikastolako zuzendaria. Bergarako Idazle Eskolako sortzailea, irakaslea eta zuzendaria. Poeta. Hamaika poema liburu argitaratu ditu Pamielan eta bi aldiz jaso du Espainiako Poesia Saria Nazionala. Azken bi liburuak poema-liburuak izan dira: *Eta orain badakit* (2011) eta *Mundua betetzen zenuten* (2015). Saiakera eta iritzi-artikuluak ere idatzi eta argitaratu ohi ditu.

Izendaezinaz izan da liburu honen aurretik idatzi duen saiakera.

Txoriak dira bederatzi liburuak formaz eta mamiz da saiakera. Modu askean eta laburrean ideiak lotzen eta askatzen saiatzen dena.

Informazio gehiago www.tereirastortza.com



www.pamiela.com • 948 326 535 • soltxate@pamiela.com